


Hezkuntza Sailak ekarri digun Lan Hitzarmenaren testuak ez du adostutakoa behar bezala jasotzen



Lan Hitzarmena

Gaur, hilak 19, EAEko Zerbitzuetako langileen urteko lehen Mahai Negoziatzailea izan dugu Lakuan. Gogoratuko duzuen bezala, **ostegunean jaso** genuen gaurko Mahai Negoziatzailean sinatzeko Lan Hitzarmenaren **testu proposamena**.

Besteen artean, azken hilabeteetan oztopo izan den sukaldetako ratioak kalkulatzeko **7 orduko koefizientea jaso izana positiboki baloratu genuen** baina, LABetik arretaz aztertu genuen testua eta ostegunean bertan **alegazioak bidali genizkion** Hezkuntza Sailari, martxoak 21ean sinatutako aurreakordioan (eta maiatzaren 22ko zuzenketetan) **jasotako guztia ez zelako jasotzen**, jatorrizko testuarekiko aldaketak zeudelako eta horrez gain, berme klausularen garapena ez zelako jasotzen bere osotasunean. Aurreko astean esan genuen **LABen sinadura izango zuela guzti guztia behar bezala jasotzen bazen**.

Ostiral eguerdian jaso genuen gaurko mahaira eraman duten **testu definitiboa** eta gure harridurarako, **LABek egindako alegazioetatik bat bera ere ez zegoela txertatuta** ikusi genuen. Esan bezala ez dugu atzera pausurik onartuko. Beraz, **administrazioaren arduragabekeriagatik** mahaian ezin izan dugu Lan Hitzarmenaren akordioa sinatu. Gainontzeko sindikatuek ere antzeko irakurketa egin eta ez dute testua sinatu. Hala ere, **lanean jarraitzen dugu** lehenbailehen testua sinatu eta hura EHAAn argitaratu dadin.

Gaurko Mahai Negoziatzailea administrazioak sinatzeko ekarri duen Lan Hitzarmenaren testuak ez du adostutako eduki guztia behar bezala jasotzen. Hori dela eta, tamalez, gaurkoan ezin izan dugu hau sinatu, baina lanean jarraitzen dugu lehenbailehen testua sinatu eta hau EHAAn argitaratu dadin.


Ordezkoen zerrenda irekiera

Gaurko Mahai Negoziatzailea ordezkoen zerrenda irekiera ekarri dute. Izan ere, zerrenda hauek, Lan Hitzarmenean adostu bezala, **irailaren 1etik aurrera irekita egon behar zuten** eta LABetik Mahai Negoziatzaile guztieta eskatu badugu ere, ez dira zabaldu. **Ordezkapenak betetzeko egongo diren arazoak** aurreikusiz, **Hezkuntza Sailak** zerrendak titulazio eta **hizkuntza eskakizunik** gabe irekitzeko **proposamena** egin digu ahoz. Beste behin ere proposamen osotu eta zehatza idatziz helarazteko eskatu diogu, berau aztertu eta alegazioak egin ahal izateko. Lehenebailehen helaraziko zaigula esan digute. LABetik gai honekiko ere, **administrazioak izan duen moteltasuna salatu** nahi dugu.

Adinagatikako murriketa

Adinagatiko murriketa eskatu duten langileen onartu eta bantzuetuen **zerrenda aste honetan argitaratuko dutela** esan digu administrazioak. Honen berri izain bezain laster jakinaraziko dizuegu. Bestetik, azken asteetan honen inguruan izan diren **arazoak bideratuta** daude, Lan Hitzarmenean **jaso bezala aplikatuko da** eta murriketa eskatzeko aplikatiboa martxan dago **Hezigunea-n**. Hala eta guztiz ere, **arazorik izanez gero jarri LAB Sindikatuarekin harremanetan**.

LABek orain arte bezala, lanean jarraituko du Lan Hitzarmena lehenbailehen sinatu eta langileen lan baldintzak hobetzeko.



El texto del Convenio Laboral que nos ha traído el Departamento de Educación no recoge adecuadamente lo acordado



Convenio Colectivo

Hoy, día 19, se ha celebrado en Lakua la primera Mesa Negociadora del personal de Servicios del la CAV de este año. Como recordaréis, el jueves recibimos propuesta de texto del Convenio Laboral.

Entre otras cosas, **valoramos positivamente** el hecho de haber introducido el **coeficiente de 7 horas para el cálculo de los ratios** de las cocina, cuya interpretación errónea por parte del departamento ha sido un obstáculo en los últimos meses. Desde LAB analizamos con detenimiento el texto y el mismo jueves **enviamos las pertinentes alegaciones** al Departamento de Educación, **ya que no se recogía todo el contenido del preacuerdo** firmado el 21 de marzo (y las enmiendas al mismo el 22 de mayo), había cambios respecto al texto original y además no se desarrollaba en su totalidad la cláusula de garantía. La semana pasada ya dijimos que **tendría la firma de LAB sólo si todo se recogía correctamente**.

El viernes al mediodía recibimos el **texto definitivo**, el cual han llevado a la mesa de hoy, **para nuestra sorpresa, vimos que ninguna de las alegaciones presentadas por LAB estaba incorporada** al mismo. Como hemos dicho, no aceptaremos pasos atrás. Por tanto, y debido a la **falta de responsabilidad de la Administración** no hemos podido firmar el acuerdo del Convenio Laboral. El resto de sindicatos han hecho una lectura similar y tampoco han firmado el texto. No obstante, **seguimos trabajando** para que a la mayor brevedad posible se firme y se publique en el BOPV.

El texto del Convenio Laboral que la administración ha traído a la Mesa Negociadora de hoy para su firma, no recoge todo el contenido acordado. Por ello, lamentablemente, hoy no hemos podido firmarlo, pero seguimos trabajando para firmar el texto cuanto antes y pueda ser publicado en el BOPV.

Apertura de la lista de sustitutos

Por otro lado, han traído la propuesta apertura de la lista de sustituciones. De hecho, estas listas, tal y como se acordó en el Convenio Colectivo, **debían estar abiertas desde el 1 de septiembre** y a pesar de que desde LAB hemos solicitado su apertura en todas las Mesas Negociadoras estas no se han abierto. **Previendo problemas para cubrir las sustituciones**, el Departamento de Educación nos ha **propuesto verbalmente abrir las listas sin el requisito de titulación ni perfil lingüístico**. Una vez más le pedimos que nos haga llegar por escrito una propuesta completa y concreta para su análisis y así poder presentar las debidas alegaciones. Se nos ha dicho que se nos hará llegar antes. Desde LAB queremos denunciar también la lentitud de la Administración respecto a este tema.

Reducción por edad

La administración nos ha transmitido que la **lista de personal admitido y excluido que ha solicitado la reducción de la jornada por edad se publicará esta semana**. Os lo comunicaremos tan pronto como sea posible. Por otro lado, los **problemas** que se han dado en las últimas semanas respecto a este tema **están ya encauzados**, y la reducción se aplicará tal y como se recoge en el Convenio Laboral. Se puede solicitar desde Hezigunea. No obstante, **si tenéis algún problema, poneos en contacto con el Sindicato LAB**.

LAB seguirá trabajando como hasta ahora para firmar cuanto antes el Convenio Laboral y mejorar las condiciones laborales de las personas trabajadoras.